

NAFARROAKO GOBERNUA  
GARAPEN EKONOMIKOA  
ESKUBIDE SOZIALAK  
OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA  
LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak apirilaren 1tik 12ra bitartean Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen IV. Jardunaldiak antolatu ditu

*Edizio honek barne hartzen ditu erakusketa bat, haurrentzako aisialdi-tailerrak, "Diversidad fuente de riqueza" eskola-lehiaketaren sariak eta Memoriari buruzko Ikus-entzunezko I. Topaketa*

Ostirala, 2019.eko martxoak 29

Nafarroako Gobernuak apirilaren 2tik 12ra bitartean [Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen IV. Jardunaldiak](#) antolatu ditu, eta artearen espresio-ahalmenaren bitartez pertsonen duintasuna errespetatzeari eta giza eskubideak defendatzeari buruz hausnarketa egitea proposatzen digu.

"Sembrando convivencia. Una mirada desde las artes" izenburupean, aurtengo jardunaldiek barne hartzen dituzte "Diversidad fuente de riqueza" II. Eskola Lehiaketa, "Caminos a la escuela" erakusketa eta haren inguruko aisialdiko tailerrak, esaterako Memoriari buruzko Ikus-entzunezko I. Topaketa.

Lehenengo asteko jarduerak Baluartean egingo dira, eta bigarren asteko dokumentalen zikloa Golem Yamaguchi zinemetan. Sarrera doakoa da.

### Sari-banaketa, "Caminos a la escuela" eta tailerrak

"Diversidad fuente de riqueza" II. Lehiaketaren sari-banaketarekin hasiko dira jardunaldiak, apirilaren 2an (asteartea), 11:00etan, Baluarteko Ganbera Aretoan. Epaimahaiak 1.500 ikaslek kasik aurkeztutako 81 lanetatik 8 aukeratu ditu. Ekitaldiak izaera ludiko-musikala edukiko du, proposatu den gaiaren inguruko hausnarketa, debatea eta sortze-prozesuetan parte hartu duten pertsona guztiei esker ona emateko. Bertan, sarituek beren lanak erakutsiko dizkigute.



**JARDUNALDIAK JOR NARDAS**  
2019ko APRILAREN 2tik 12ra  
"Birikidetzaren erin. Berriratu bat arteen bidez"  
DEL 2 AL 12 DE ABRIL DE 2019  
"Sembrando convivencia. Una mirada desde las artes"

BAKEA, BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEAK | PAZ, CONVIVENCIA Y DERECHOS HUMANOS

**2 ASTEARTEA MARTES**  
BALUARTE  
19:00h. SARI BANAKETA II. ESCOLA LEHIAKETA "ANIZTASUNA ABERASTASUN"  
17:00h. ENTEREGIA PREMIO II CONCURSO ESCOLAR "DIVERSIDAD FUENTE DE RIQUEZA"

**3 ASTEAZKENA MIÉRCOLES**  
BALUARTE  
19:00h. ARIKETA ERAKUSTAREN ERKIBERA "ESKOLARA BIDEAK" NAIZTAREN 2tu ARTE  
19:00h. APERTURA DE LA EXPOSICIÓN FOTOGRAFICA "CAMINOS A LA ESCUELA" HASTA EL 9 DE MAIO

**4 OSTEGUNA JUEVES**  
BALUARTE  
TALLER LUDICOHA HAURRENTZAK ESKOLARA BIDEAK 19:15 orain / 18:15 orain  
Tallerak apirilaren 11an, 12an eta 13an egongo dira. Horien berri emateko jarraitu behar duzu: [naiztaren@navarra.es](mailto:naiztaren@navarra.es)  
TALLERES LÓGICOS INFANTILES CAMINOS A LA ESCUELA 19:15 orain / 18:15 orain  
Los talleres se realizarán los días 11, 12 y 13 de abril con el mismo horario y con previo inscripción en: [naiztaren@navarra.es](mailto:naiztaren@navarra.es)

**9, 10, 11, 12** APRILA ABRIL  
GOLEM YAMAGUCHI  
ASTEAREN OSTEGUNA 2 SAIO 18:30 / 20:30 OTORRIK 9 SAIO 18:30 / 20:30  
DE MARTES A JUEVES 3 SAIO 18:30 / 20:30 VIERNES 3 SAIO 18:30 / 20:30  
19:00h. ENKUNTRO AUDIOVISUAL "MEMORIA DUTEN IRUDIAK"  
19:00h. ENKUNTRO AUDIOVISUAL "IMÁGENES CON MEMORIA"  
Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra

Jardunaldien kartela.

“Caminos a la escuela” erakusketa apirilaren 3tik maiatzaren 3ra bisitatu ahal izango da Baluartean. Argazki-erakusketa hau 18 argazki-kazetarien lanak biltzen dituen proiektu baten parte da. Horien bidez, mundu osoko neska-mutilek eskolara iristeko dituzten eguneroko desafioak deskribatzen dizkigute, batzuetan bizitza arriskuan jartzeraino, hezkuntzaren bitartez bizitza hobea lortuko dutenaren itxaropenarekin.

Hain zuzen, erakusketa honetarako hautatu diren irudiek Alaska, Brasil, Burkina Faso, Estatu Batuak, Frantzia, Kenya, Libia, Nigeria eta Tailandian lekutatuko hamar istorio erakusten dizkigute. Istorioak hiru kategoriatan banatzen dira: “Distantzia luzea”, “Etsaitasunezko ingurunea” eta “Diskriminazioa”. UNESCOk Sipa Press agentzia prestigioetsuari enkargatutako erakusketa Iruñera iritsi da, New York, Paris eta Madrilaren egon ostean.

Erakusketara edonor bertara daiteke, Baluarteko irekiera-ordutegian, eta ikastetxeek goizez bisita dezakete, 10:00etatik 12:00etara, aurretiaz izena eman eta gero [pazyconvivencia@navarra.es](mailto:pazyconvivencia@navarra.es) helbidean. Horrez gain, hilaren 4an (osteguna), eguerdiko 12:00etan, bisita gidatua egingo da.

Erakusketarekin batera haurrentzako aisialdi-tailerrak antolatu dira. Apirilaren 4an, 13an, 20an eta 27an, 6 eta 11 urte bitarteko neska-mutilek “Caminos a la escuela: experiencias y realidades cotidiana en el mundo sobre el acceso diario al derecho a la educación” tailerrean parte hartu ahal izango dute. Egunean bi saio egingo dira, euskarazkoa 17:15ean eta gaztelaniazkoa 18:15ean, guztiak Baluartean. Hurrekin doazen pertsona helduek saio horietan parte har dezakete ere. Sarrera doakoa da eta aurretiaz izena eman behar da [pazyconvivencia@navarra.es](mailto:pazyconvivencia@navarra.es) helbidean edo 848426048 telefono-zenbakira deituta.

### **Ikus. entzunezko I. Topaketa**

Jardunaldien bigarren astean Ikus-entzunezko I. Topaketa egingo da, “Imágenes con miradas” izenekoa, memoria historikoari buruzko dokumentalen zikloa. Apirilaren 9an, 10ean, 11n eta 12an 9 dokumental botako dira Golem Yamaguchi zinemetan: 18:30ean eta 20:30ean asteartean, asteazkenean eta ostegunean, eta 18:30ean, 20:30ean eta 22:30ean ostiralean.

Sarrera doakoa da tokia bete arte, eta gonbidapenak leihatilan eros daitezke apirilaren 5etik aurrera. [Saio guztien](#) amaieran dokumentalen zuzendariekin mahai-ingurua egingo da.